

LEGEDIA ETA BALDINTZAK

Gipuzkoako kirol arrantza jarraian aipatzen dugun foru-aginduaren bitartez araututa dago: 2008ko otsailaren 15eko FORU AGINDUA, 2008ko denboraldian Gipuzkoako Lurralde Historikoan ibai arrantzaren aprobetxamenduari buruzko araudia garatzen duena (GAO 37 zenbakia, 2008ko otsailaren 21ekoa)

ARRANTZARAKO EPEALDIA

- ▶ **Orokorra:** martxoaren 23tik uztailaren 31ra.
- ▶ **Hil gabeko arrantza eremuetan:** martxoaren 23tik irailaren 30era.
- ▶ **Urtegietan:** martxoaren 23tik irailaren 30era.
- ▶ **Ziprinidoen tartean:** urte guztian zehar

ARRANTZA DAITEZKEEN ARRAN-TAMAINAK

- ▶ **Neurketa egiteko modua:** buruaren erpinetik isatseko erdi-punturaino.

Amuarrain arrunta eta ortzadar amuarraina:

gutxienez: 22 cm eta gehienez 35 cm


Aingira: 20 cm

Barboa: 20 cm

ARRANTZA DAITEKEEN ARRAN KOPURUA

- ▶ **Arrantzaleko eta eguneko 3 amuarrain.** Bertakoa (*Salmo trutta fario*) eta ostadar amuarraina (*Oncorhynchus mykiss*) espezieetakoak badira.

ARRANTZA BARRUTIAK GIPUZKOAN



ZEBRA MUSKUILUA

Zebra muskuilua Gipuzkoako uretara etorri ez dadin, eta ekosistemetan sortzen dituen kalte ekologiko zein ekonomikoak eragin ez ditzan, legez neurri hauek hartzea erabaki da:

- ▶ **Arrantza-tresnak lixibaz garbitu beharko dira: ur litroko 2-3 lixiba-tanta nahikoak dira desinfektatzeko.**
- ▶ **Arrantza-tresnak 4 eguneguz eguzkitan lehortzea gomendatzen da.**



ARRANTZA GIPUZKOAKO IBAIETAN



EGOERA ETA BALDINTZAK 2008ko DENBORALDIAN




Ibai nagusien egoerak, uraren kalitateari dagokionez, nabarmen egin du hobera azken urteetan, eta horrek, hainbat ibai-eremuetan arrain-komunitateen berreskurapena eragin du. Deba ibaiaren arropa da, Oriarenarekin batera, egoera txarrean dagoena. Ibai nagusien etengabeko saneamenduak, ziprinidoen, barboaren eta loinaren egoera hobeto du; baina amuarrariaren populazioak, aldziz, ez dira hobetu, eta ondoen kontserbatutako erreketan bakarrik aurki daitezke.

Hainbat faktorek Gipuzkoako amuarrain-populazioak gutxitzea eragin du. Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat neurri hartu baditu ere, arrantzaleen kolektiboak egoera honetaz jabetu behar du, hartutako neurriak gauzatzen lagunduz.

Argitalpen honen bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuak, zuen arrantza-eremuetako amuarrain populazioak zaintzera gonbidatzen zaituzte. Aprobetxamendu jasagarria bermatu behar da, eta horretarako ezinbestekoa da arrantza-kolektibo osoaren laguntza, arrantza-elkarteak eta Arrantza Federazioa barne.

AMUARRAINAREN EBOLUZIOA GIPUZKOAN



Azken 13 urte hauetan Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako amuarrain populazioen jarraipen zehatza egin du. Ikerketa honetan garbi ikusi da azken 13 urte hauetan amuarrain populazioak beherantz egin duela, eta joera beheranzkoa duela.

Azken bi urteetan arazoa larrituko duen egoera mantentzen da: jaio berri diren eta gazte adinera iritsi diren amuarrainen kopurua urria da. Honek, ugaltze-tasak txikitzea eragin du, eta hori saihestea ezinbestekoa da etorkizunean populazioak handitzeko.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK HARTU DITUEN NEURRIAK:



1 EGUNEAN ARRANTZA DAITEKEEN AMUARRAIN KOPURUA GUTXITU DU: 3 AMUARRAIN EGUNEKO.

2



GIPUZKOAKO HAINBAT ERREKETA ARRANTZA-DEBEKUKO TARTE GEHIAGO JARRI DITU, BERTAKO AMUARRAIN POPULAZIOA ZAINDU ETA BERRESKURA DADIN.

3



HIL GABEKO ARRANTZA-TARTEAK UGARITU DITU, ETA HAUETAN ARRANTZATZEA BULTZATZEN DIHARDU.

ARRANTZAGARRIAK DIREN ESPEZIE INTERESGARRIENAK:

Amuarrain arrunta (*Salmo trutta fario*)



Amuarraina Gipuzkoan arrantza daiteken espezie garrantzitsuen eta preziatuena da, eta era berean, balore handiko natur baliabidea. Ondo kontserbatuta dauden ibaietan bakarrik aurki daitezke. Arestian adierazi dugun moduan, azkeneko urteetan bere egoera nahiko larria da, eta beraz, oso garrantzitsua da ibaiak zaindu, eta kirol-arrantza iraunkorra bultzatzea.

Ostadar amuarraina (*Oncorhynchus mykiss*)



Ostadar amuarraina kanpoko espeziea da. Gipuzkoako zenbait ibai tarteetan arrantzarako sartzapenak egiten dira. Estrategia honek bi helburu ditu: lehen, bertako amuarraina kaltetu gabe, populazio sendoak ez dauden tarte jakinetan arrantza-eremuetara eramatea. Eta bigarrena, ibai eta erreka onenetatik arrantza-presioa kentzea.

Barboa (*Barbus graellsii*)



Barboaren populazioak asko ugartu dira Gipuzkoan. Ibai nagusien ur-kalitatea hobetzearekin batera, arrainen populazioek ibai eta erreka kolonizatu dituzte. Gaur egun ibai nagusietako tarte askotan barboaren populazioak ugariak badira ere, Gipuzkoan barboa ez da oso preziatua. Ziprinidoen arrantzarako baimenduriko tarte bakarra Urolan dago, Zestoa inguruan. Tarte horretan ziprinidoak urte guztian zehar arrantza daitezke.

Karramarro seinaleduna (*Pacifastacus leniusculus*)



- ▶ Leitzaran erreka kotoan soilik arrantza daitezke.
- ▶ Afanomikosiaren eramailea izanik, bertako karramarroa kutsatzen duen bektoreetako bat da.